



OLINPIADAK

Dena prest, olinpiaden sua pizteko!

Hogeita bi taldek hartuko dute parte aurten, Olinpiadetako hirugarren edizioan. Hamar proba egun izango dira aurten; aurrenekoa larunbatean bertan. Ostegunean bilera deitu dute, Gaztetxean.

O GRIPEAK kutsatuta hasiko dira larunbatean Hernaniko Gazte Olinpiadak. 22 talde animatu dira aurten, lagunartean, euskara sustatu, kirola egin eta ondo pasatzera. Taldeak berrantolatu egin dira; beteranoak elkartu, berriak sortu... Antolatzaileak gustura dira: «aurreko edizioetan baino talde gutxiago izateak ez du esan nahi parhartzaille gutxiago daudenik. Aurten gainera, lokalean ibiltzen diren gazteengan jo dugu eta koadrila asko animatu dira; pozik gaude»

Larunbatean hasi eta ekainaren 21a arte, 10 proba egun jarri dituzte. Aurreneko probak larunbatean izango dira; zehazki, hauek: pintxadartea, O faktorea, irekiera ekitaldia, txaranga eta kontzertuak. Astez eta asteburuetan jokatuko dira pro-

bak. Tradizioa bihurtu diren probik ez da faltako: Boxleya, Ereñotzuko eguna eta patin lasterketa... Baina bat baino gehiago harrিতuta utziko dituen probak ere antolatu dituzte aurten: *Humor Amarillo* saio mitikoa ekarriko dute gogora, besteak beste.

Bilerak, probak azaltzeko

Proba guztien antolaketak lan asko du atzetik, eta dena ondo atera dadin, bilerak antolatu dituzte ekainera bitartean; aurrenekoa, ostegunean bertan. Bilerak guztiak Gaztetxean izango dira, 19:30etan. Fetxak hauek dira: apirilak 24, maiatzak 14 eta 28, eta ekainak 11 eta 18.

Olinpiaden inguruko informazio gehiagorako edo sailkapenak begiratzeko hernanikogazteasanblada.com. ||



Mendi lasterketa egin zuten apirila hasieran, Olinpiadak berotzen joateko. 52 pertsonak eta 7 txakurrek hartu zuten parte, eta sailkapeneko aurreneko puntuak banatu zituzten; taldeko kide bakoitzeko puntu bat. Argazkiko 'Gautxoriak' taldeak 10 puntu lortu zituen.

ATEZ ATEKOA

Zama haundiko hondakinak biltzeko eguna, osteguna

Zama haundiko hondakinak bilduko ditu Udalak ostegunean. Ordenagailu, altzari, elektro-gailu, sofa... zahar bat atera eta biltzea nahi duenak alde zuzenean deitu eta eskatu behar du. Horretarako telefonoa: 900 840 090. ||

GAZTE TXOKOA

Txindokiko zuhaitz parkera, irteera

Ostegunean Txindokiko Itzala zuhaitz parkera irteera antolatu dute Gazte Txokoan. 11-16 urte bitarteko neska-mutilei dago zuzenduta, eta parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute Gazte Txokoan. Prezioa: 5 euro. ||

MENDIRIZ MENDI

Helduen irteeran, izen ematea

Mendiriz Mendi elkarteak Untza, Arando, Txarlazo eta Urduñatik barrena antolatu du apirilko irteera, helduentzat. Igandean egingo dute buelta eta parte hartu nahi dutenek gaur edo ostegunean eman behar dute izena. Prezioa, 14 euro bazkideentzat; 11 bazkide ez direnentzat. ||

DOBERA

Udaleku ibiltarietan, izen ematea

Dobera Euskara Elkarteak Udaleku ibiltariak antolatu ditu uztailan, DBH 1, 2 eta 3garren mailako ikasleei zuzenduta. Baztanetik barrena, 12 eguneko plana antolatu dute. Izena eman nahi dutenek bi aukera dituzte: orria beteta bidali behar dute dobera@dobera.com helbidera edo bulegoan entregatu (Larramendi 11, behea). Prezioa 200 eurokoa da bazkideentzat eta 245 eurokoa bazkide ez direnentzat. Diru sarre-rra Kutxabankeko kontuan egin behar da: 2095 5041 14 1061652383. ||

SAILKAPENA

Gautxoriak 10
Borboitarak 8
Hortzak Estutu 7
Lau Katu Karakolinpikoak 6
Pabo Rangers 4
Balletan Jarrai 3
Piztiak eta Ederrak 3
Salda parranda ta gero 3
Xatorkeitak 3
Putreak 2
Izenik Pe! 1
Brugalkaba 1
Ardi Galduak 1
Kamon Tutankamon 0
Mongi Nago 0
Upeliotarrak 0
Hernaniharrak 0
Pelotoia 0
Los Zetas Zero Zabor 0
Apatxeak 0
Olkis&mondejus 0
Inpernuko Larroxak 0

EGUTEGIA

APIRILAK 26, LARUNBATA

■ **PINTXANDARTEA TILOSETAN:** Taldearekin zerikusia duen estandartea eta pintxoak egin.

■ **O FAKTOREA:** 2 minutu abileziak erakusteko.

■ **OLINPIADEN IREKIERA:** ekitaldia, txaranga eta kontzertuak: *Cajon Prieto, Metal Down* eta *Oi dek oi*.

APIRILAK 30, ASTEAZKENA

■ **PATIN LASTERKETA:** Lasterketa mitiko, klasiko eta berria.

MAIATZAK 8, OSTEGUNA

■ **KUADRIGAK:** Erromatarren antzera, koadrilak herrian lantza, gezi eta abarrekin.

MAIATZAK 17, LARUNBATA

■ **LANDAREN EGUNPASA:** Goizean munduko ginkana ikusgarriena eta bazkaria. Arratsaldean, joku erraldoiak.

MAIATZAK 18, IGANDEA

■ **HUMOR AMARILLO**

MAIATZAK 22, OSTEGUNA

■ **BOLEIBOL PARTIDUAK**

MAIATZAK 31, LARUNBATA

■ **BOXLEY:** Hernanin inoiz ikusitako haundiena, Ave Marian.

EKAINAK 5, OSTEGUNA

■ **PIN PON RULETA ETA 'A CAPAR' SASKIBALOA**

EKAINAK 14, LARUNBATA

■ **JOKU SORPRESAK EREÑOTZUN**

EKAINAK 21, LARUNBATA

■ **OLINPIADEN ITXIERA, BAZKARIA ETA SARI BANAKETA.**

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com

Orkolaga, 57
943-55 79 01
HERNANI

VGALDETXXO
Jatetxea

BAZKARIAK
ETA
AFARIK

Ereñozu auzoa
20120 Hernani (Gipuzkoa)
Tel: 943 55 02 40

CATALANA OCCIDENTE
Aseguruak

Atzeta 30 -
20120 Hernani
Telf - 943-332440
Fax - 943-556602

-Bautista -Blurrarena -Etxegolen

gse
Asesoreak

Abolkularitza eta tramitazio zerbitzua

Kardaberaz 40 behea
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
www.gseasesores.net

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Aldabe Perkaitezgi 8 (Antziola) 943 336022 • Gaeuz: Alzpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURADIA
GAUR Giro nahasia izango da: goizean zaparradak; arratsaldean ostertak. Tenperatura aldaketa askorik ez: Min.9° / Max.15°
BIHAR Antzeko eguraldia bihar ere. Goizean zaparradak espero dira, eta arratsaldean atertzera. Tenperatura, gora: Min.10° / Max.17° (euskalmet)

TILOS 7 PASA



Asko dira Tilosetako partiduak ikustera gerturatzen diren herritarrek; giro bikaina izaten da.

Hamaika partidu jokoa, osteguna bitartean

Tilosetako pelotalekuan jokatuko dira partidu guztiak, iluntzean.

JOAN den astetik jokoa da Tilos 7 pasa txapelketaren edizio jendetsuena. Maiatza erdialdera bitartean, ligaxkako partiduak jokatuko dira, hiru mailatan. Astelehenetik ostegunera jokatzen dira partidu guztiak, ordutegi berean: 19:00, 19:45 eta 20:30etan; aste honetan, hamaika jokatuko dira. Ligaxka bukatuta, final zortzi-renak jokatuko dira maiatza bukaerara arte. Final laurden eta erdiak ekaina hasieran jokatuko dira. Eta final haundiak, ekainaren 13an. ||

ASTE HONETAKO PARTIDUAK

GAUR

19:00 Torero-Aritz/Mikel-Jon Ander
 19:45 Kerejeta-Gurrutxaga/Josu-Joseba
 20:30 Juarez-Erostarbe/Iturbe-Arozena

BIHAR

19:00 Jon-Xabier/Bittor-Andoni
 19:45 Errasti-Esnaola/Legarreta-Legarreta

ASTEAZKENA

19:00 Ekaitz-Iñaki/Dani-Ander
 19:45 Zabala-Arluziaga/Sagaseta-Beloki
 20:30 Lujanbio-Lujanbio/Gaxi-Ibai

OSTEGUNA

19:00 Lazkano-Urdanpilleta/Murua-Arruti
 19:45 Maitane-Uxue/Idoia-Iratxe
 20:30 Jonkar-Nani/Iker-Julen

UDALA ZIKLOBIA

Zer egingo zenuke motorrak errepidetik ateratzeko?

Udala proposamenak biltzen ari da 'ziklobia@hernani.net' helbidean. Ostiralera arte dago epea zabalik.

ZIKLOBIA antolatu dute ekainaren lehen, Donostia 2016 ekimenaren barruan. Hernani, Astigarraga, Martutene eta Donostia lotzen dituen errepidea itxita egongo da kotxe, moto, kamioi eta motorra duten beste ibilgailu guztientzat. Goizeko 10:00-etatik arratsaldeko 18:00etara itxiko dute errepidea, eta ibilbide osoan zehar ikuskizun eta tailerrak izango dira. Hain zuzen, zer egin antolatzeko proposamenak

biltzen ari dira.

Proposamenak, emailez

Hernaniko Udalak bilera bat egin zuen hilabete hasieran herriko zenbait taldeekin, proposamenak biltze aldera. Herriarren proposamenak biltzeari ere, garrantzia eman nahi izan dio Udalak, eta helbide elektronikoko bat jarri dute horretarako: ziklobia@hernani.net. Proposamenak bidaltzeko epea ostiralera arte dago zabalik. ||



Udalak urtean zehar antolatzen ditu antzeko ekimenak.

GOIZ EGUZKI

Udaberriko jokoa, izen ematea

Bihar, etzi eta ostiralean Udaberriko jokoen torneo antolatu dute Goiz Eguzkin. Bazkideentzako torneo da, eta parte hartu nahi dutenek alde aurretik eman behar dute izena. Goiz Eguzkiko egoitzan eman behar da, bulegoko ordutegian; 16:00etatik aurrera. ||

Kantabriara hiru eguneko irteera antolatu dute, maiatzean

Kantabrian hiru egun pasatzeko aukera jarri diete Goiz Eguzkiko bazkideei maiatzaren 9tik 11ra. Irteeraren prezioa, pertsonako, 157 eurokoa da, logela bikoitzean; suplemento bakoitzeko 30 euro ordaindu behar dira. Parte hartu nahi duten bazkideek hilaren 28a baino lehen eman behar dute izena. Plazen zozketa maiatzaren 5ean egingo dute. Irteera egin ahal izateko, gutxienez, 40 lagunek apuntatu behar dute. ||

KIROLDEGIA

Squash txapelketan parte hartzeko izen ematea irekita dago

Hernaniko Udalak XIX. Squash txapelketa antolatu du aurten. Parte hartu nahi duten herritarrek izena eman behar dute; ez da ezinbestekoa kiroldegiko bazkide izatea. Behar adina partehartzaile apuntatu ko balira, bi txapelketa antolatuko lituzketela azaldu dute; bata gizonetzkoena, eta bestea emakumezkoena. Izen emateko epea maiatzaren 4an bukatzen da. Informazio gehiagorako: 943 55 21 85. ||

Gaur goizez bakarrik; bihartik ordutegi normala

Aste Santuko oporrak direla eta, Kiroldegia goizez bakarrik dago irekita; gaur, 08:30etatik 13:00etara egongo da zabalik. Bihartik aurrera ohiko ordutegian funtzionatuko du. ||

Txartel berria behar da, Kiroldegira sartzeko

Kiroldegira sartzeko txartel berria behar da joan den astelehenetik. Oraindik jaso ez dutenek Kiroldegiko bulegotik pasa behar dute Nortasun Agiriaren fotokopiarekin. Ordutegia da: 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. ||

ERREMONTA

Barrenetxeak ezin, Aste Santuan jokatutako bi partiduetan

Barrenetxea IVak bi estelar jokatu ditu Aste Santuan. Ostegunean Ezkurrearekin jokatu zuen, Etxeberria IV eta San Miguelen kontra. Aurkariak dominatu zuten partidua eta 32-40 galdu zuten. Larunbatean berriz, tantu bateko aldeगतik galdu zuen erremontista hernaniarrak. Etxeberria IVrekin jokatu zuen Uterga eta Ionon kontra, eta 40-39 galdu zuten. ||

SAN JOAN KONPARTSA

Elgorriagako bainuetxera joateko zozketan, zenbaki saritua: 0496

San Joan Konpartsak bi lagunentzako gaua, otordua eta zirkuitua zozketatu ditu Elgorriagako bainuetxean. Zenbaki saritua 0496a da. Irabazleak maiatzaren 11a baino lehen deitu behar du 695 753 138 telefonora. ||

IRAGARKI MERKEAK

Pixua alokatzen da zentroan, 4 gela, bi komun, sukaldia, egongela-jangela, 100m2. Erdigunean, altua eta eguzkitsua. Deitu: 699 49 22 35

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Itigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)